

Xabier Ariztegi, "Xantxin", egindako elkarrizketa

1) Elkarrizketatuaren aurkezpena:

Beñat. GehienOk jakinen duzuen bezala, Xantxineko Bordako "Xantxin" aizkolarien munduan aritzeaz gain, Sasoi enpresan egiten du lan. Aurten 2. Mailara igo denez, proposa iruditu zaigu bera elkarrizketatzea.

2) Elkarrizketako galderak:

Beñat. Egun on, Xabier!. Lehenik eta behin, eskerrik asko guregana hurbiltzeagatik, eta zorionak 2. Mailara igo zarelako!.

Xabier. Egun on, bai! Eta eskerrik asko!.

Imanol. Nola sartu zinen aizkolaritza munduan?

Xabier. Beno, ba aizkoran hasi ginen orain dela lau urte, ta herri-kirolak herrian egiten ditugula herriko gazteek, eta hartan hasi ginen Xabier Koxme eta ni, eta hartan lau urte, eta horrela hasi ginen.

Imanol. Zenbat urterekin hasi zinen aizkolaritzan?

Xabier. Orain dela lau urte, ordun hogeitatu urtekin.

Imanol. Nola lortu duzu 2. mailara pasatzea?

Xabier. Ba, hortako, ba pixka bat entrenatu eta gustatuz gero, ba ari, eta hola lortu nun.

Imanol. Non entrenatzen zara aizkoran?

Xabier. Egurra normalean izaten dugu, osaba eta biok aritzen gara, eta ordun Oronoz-Mugairen, eta gero handik egurra ekarri, eta baserrian aritzen naiz, hemen ere bai.

Imanol. Zenbat denbora entrenatzen zara?

Xabier. Entrenamentu luzeak izaten dire, bestelakoz aizkoran ari baikara, egurra prestatzen izaten da lan handia, eta ordun entrenamendu bat, igual joaten da. Lan dexente egin behar da, ordu pare bat prestatu eta denekin joaten da, bai.

Imanol. Gustura aritzen aizkolaritzan?

Xabier. Bai gustatzen zait, eta bai.

Imanol. Zer jaten duzu txapelketa hasi baino lehen?

Xabier. Jatekari ez diot hola kasu handirik egiten, denetik jaten dut, normal, oain zerbait indar lan egin behar dela, arintxoago jan, beti, komeni izaten da.

Imanol. Zein aizkora mota erabiltzen duzu? Zerezkoa da?

Xabier. Aizkorak, normalean, txapelketetako izaten dira australiarrak eta gero, entrenatzeko eta, burnietan eta, badaude beste aizkora batzuk, baino onenak hola, ona izateko australiarrak izan behar dira.

Imanol. Nork zorrotzen ditu aizkorak? Nola?

Xabier. Zorroztu normalean neonek, oain aizkora erosi eta prestatu behar baldin bada, eramaten diot Doneztebeko lagun bati prestatzeko, baino zorrotzu neonek.

Imanol. Nork ematen dizu aizkorak eta materialak erosteko dirua?

Xabier. Hori neonek egiten dut, neonek egurra erosi eta nik egiten dutena.

Beñat. Nondik ateratzen duzu egurra?

Xabier. Egurra normalki erosi egiten dugu, eta gero, etxeko egurra baldin bada hura ere bai moztu, baina erosi gehien bat.

Beñat. Aizkolaritzaz bizi al daiteke?

Xabier. Ez dut uste, Larretxe eta hok denak, lanean ari dira eta hoiek ja badire onenak, eta biziak gastuak hagitz haundiak ditu eta bizitzeko, ez.

Beñat. Diru asko irabazten da?

- Xabier. Gu bezalako batzuk, ba afariren bat edo, baino ez. Diru gehiagorik ez.
- Beñat. Astia ba al duzu lana eta entrenamenduak egiteko?
- Xabier. Udan eta ibiltzen gara nahiko gaizki, lanen ordu aunitz sartu beharra dagoelakoz. Gero dantzan ere, igual, ibiltzen gara, eta ordun denetako denborik ez da izaten, baino bueno, poliki-poliki ailegatzen gara.
- Beñat. Lagun asko egin al dituzu aizkoran? Eta etsairen bat?
- Xabier. Lagunak, ateriz gero, beti jende ezagutzen da. Eta etsaia, ba bueno, irabazi ezin izan dizun bat, hura etsaitzeko.
- Beñat. Zenbat estimatzen zaitu jendeak?
- Xabier. Hori, jada, jendik erran beharko luke, ez dakit, bertze gauzin bezala, nik uste.
- Beñat. Nola sentitzen zara jendearen aurrean? Lotsatzen zara?
- Xabier. Lehen gehiago. Lehen beti izaten da plazari errespetua, izaten da beti ateratzeko, baino bueno, oain beti hori hagitz galdua egiten da, eta oain nahiko ongi.
- Beñat. Zenbat denbora daramazu aizkolaritzan?
- Xabier. Bueno, hasi ginela lau urte, baino hola serioxeago, ba urte bat...urte pare bat.
- Beñat. Zenbat denbora jarraitzeko asmoa duzu?
- Xabier. Ba hori, gustora aritzen naiz, eta zenbat ez dakit nik, oaindik segituko dut eta ikusiko da gero ere, ez dakit.

3) Elkarrizketaren amaiera:

- Beñat. Azken galdera honekin bukatutzat emaiten dugu elkarrizketa hau eta berriro ere eskertzen dizugu honat etorri izana.